



BATERIADUN ONTZIAK - TUPPERWALK

Nora Etxezarreta, Nehia Sukia, Saioa Altuna eta Haizea Aristi



SARRERA

Idea hau aurrera eraman nahi dugunok ikasleak garenez, badakigu zer den bazkari hotza jatea; beraz, arazo hau konpoduko duen produktua sortzea erabaki dugu, Tupperwalk izeneko enpresa sortuz. Arazo honek adin guztietako jendearengan du eragina, edonori ahalbidetzen diolako etxetik kanpora janaria berotzea.





[WEBGUNEA](#)

IDEIA

Tupperwalk enpresa sortzea erabaki dugu. Kristalezko edo metalezko tupperrei bateria bat jarriko diegu bezeroek edonon janaria berotu dezaten. Horretarako 3.000€ jarriko ditugu hasieran bazkide bakoitzak proiektua aurrera eramateko; beraz, guztira 12.000€ izango ditugu. Horrez gain, enpresa ezberdinekin elkartuko gara gure tupperrak zabaltzeko. Beste sozietate batzuekin elkartzeaz gain, enpraso kide bakoitzak funtzezko baliabide bat ezarriko dugu. Bestalde, gure webgunea sortuko dugu eta sare sozial ezberdinetan ere egingo dugu profila gure enpresa zabal dadin. Zabaltze honetarako plan eta antolamendu berri ezberdinak pentsatuko ditugu. Zalantzarik gabe, negozio honek hasieran gastu handiak ekarriko dizkigu, ondoren ordea, diru sarrerak gehiago izango dira. Hauek aztertu egingo ditugu.